

## LESKAKO UDAL KIROLDEGIKO BARNE ARAUDIA

### I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Araudi honen helburua LESKAKo Udalaren Kirol-instalazioen ("LESKAKO UDAL KIROLDEGIA" izenekoak) erabilera arautzea da.

2. artikulua. Udalak zehaztutako eskakizunak betetzen dituzten herritar guzietan erabili ahal izanen dituzte kirol-instalazioak.

3. artikulua. Instalazioaren eremu bakoitzean, eremu horretarako pentsatu diren edo egokiak diren kirol eta jarduerak egin ahal izanen dira.

4. artikulua. Kiroldegiko egutegia eta ordutegia Udalak onartuko ditu.

5. artikulua. Udal Kiroldegian, honako informazio hau biltzen duen kartel bat egonen da, erabiltzaile guzietan ongi ikusteko eta aise iristeko moduko toki batean:

-Instalazioak noizbehinka erabiltzeagatik zenbat ordaindu behar den.

-Egutegia eta ordutegia.

-Erabiltzaile-kopurua, edukiera eta ezaugarri tekniko nagusiak.

-Zein programa eta zerbitzu ematen diren.

Aise kontsulta daitekeen toki batean, Araudi honen ale bat jarriko da.

### **II. KAPITULUA**

Abonatuei buruzkoa.

6. artikulua. Honako baldintza hauek bete beharko dira abonatu izateko: izena emateko eskaera aurkeztea eta hura onartuta egotea, "HERRITAR TXARTELA" izatea eta Udalak ezarritako kuota ordaintzea.

Kirol Txartela duten abonatuak honako instalazio hauetara sartu ahal izanen dira, betiere urte-sasoia eta eremu bakoitzak duen araudi espezifiko aintzat hartuta:

**-Negu-garaia:**

Igerilekuen eraikina.

Igerileku klimatizatuak.

Gihartze-gela.

Jarduera-gelak.

Spa-eremua.

Haur-eremua.

Tratamenduak, bakoitzari dagokion kuota ordaindu eta gero.

Ostatua - Jatetxea.

**-Uda-garaia: Aitzinetik aipatutako eremuez gain:**

Igerileku irekiak.

Belardia.

Halaber, abonatuak izateagatik, abantailak izanen dituzte edozein ataletan eta antolatzen den edozein jardueratan; horien berri, instalazioetan bertan eta webgunean jakinaraziko da.

7. artikulua. Abonatu mota:

7.1. Eskaera egiten duen edozein pertsona fisiko izan daiteke abonatua.

Udalak zehaztuko ditu egoera berezietako abonatua izan ahal izateko baldintzak.

7.2. Honako abonatu mota hauek izanen dira:

A Mota: 4 urtetik beheetiko haurrak.

B Mota: 4 eta 10 urte bitarteko haurrak.

C Mota: 11 eta 15 urte bitarteko gaztetxoak.

D Mota: 16 eta 64 urte bitarteko helduak.

E Mota: 65 urtetik goitiko helduak. Adin-sail hau "BERTZELAKOAK" taldearen barruan dago, eta, hor, 65 urtetik goitikoak, herbalak eta sortzen ahal diren bertzelako kasu bereziak sartzen dira.

7.3. Abonatuak Udalak une bakoitzean finkatutako kuotak –Kiroi Batzordeak proposatutakoak– ordaindu beharko dituzte. Kuota horien zenbatekoa urtero zehaztuko da ilbeltzaren 1a baino lehen.

7.4. A Motako abonatuak ez dute inolako kuotarik ordaindu behar.

7.5. %65eko edo hortik goitiko herbaltasuna duten pertsonak E Motako abonatuak hartuko dira; horretarako, agiri ofizial bat aurkeztu beharko dute.

7.6. Abonatua izan nahi duten pertsona guzietan hasierako sarrera ordaindu beharko dute.

Hasierako sarrera ordaintzen den unetik aitzinera, ordainagiriak bidaltzen hasiko dira, dokumentazio guziaz Kiroldagian zein egunetan aurkeztzen den kontuan hartu gabe.

Abonatua izateari uzten dionak ezin izanen du diru hori bueltatzeko eskatu. Geroago berriz ere abonatua izan nahi badu, berriz ordaindu beharko du hasierako sarrera.

Ohiz kanpoko kasuetan, LESAKAKO Udalak aztertuko du denboraldi baterako eszedentzia ematea.

7.7. Kiroldegiko bakarkako abonatuia izan nahi duenak, guttienean, 18 urte izan beharko ditu. Adin ttikikoek, bakarkako abonatuia izateko, gurasoen baimen sinatu beharko dute eta gurasoak izanen dira beren seme-alaben ekintzen arduradunak.

7.7.1- 11 eta 15 urte bitarteko gaztetxoak bakarka abonatu ahal izanen dira, aldeztuetatik harreran eskaera idatzia aurkeztuta, eta baldin eta gurasoek edo legezko tutoreek horretarako baimen berezia sinatzen badute; baimen hori instalazioan bertan sinatu beharko dute abonatu-fitxa entregatzean.

7.7.2.- Instalazioan jasotako idatzizko eskaera bereziak bakarka tratatuko dira eta enpresa kudeatzaileak aztertuko ditu udalarekin koordinatuta.

8. artikulua. Ezarritako ordainketak banku-igorpenaren bidez egiten dira, abonatuak emandako kontu-zenbakian; ez da bertze modurik onartuko kuotak ordaintzeko; beraz, nahitaezkoa da banku-igorpenak egiteko kontu-zenbaki bat ematea.

9. artikulua. Kuotak ordaintzen ez badira edo ordainagiriak bueltatzen badira, bi ordaintze-eskakizun egiten dira; eskakizun horiek egin direnetik hilabetea pasatu eta gero erantzuten ez badu, pertsona horrek abonatuia izateari utziko dio eta abonatu gisa zituen eskubide guztiak galduko ditu. Abonatu izateari utzarazteaz gain, martxan jarriko dira ordaindu gabeko kuotak kobratzeko legezko prozedurak eta dagozkion gainordainak ezarriko dira.

Aitzineko paragrafoan aipatutakoarengatik abonatuia izateari uzten bazaio, kuota guztiak ordainduta bakarrik abonatu ahal izanen da berriz; kasu horretan, berriz ordaindu beharko da hasierako sarrera.

10. artikulua. Abonatuia izateari utzi nahi duenak idatzizko eskari bat egin beharko du. Eskariaren ereduia Kiroldegiko harreran emanen zaio eta ale bakoitza bakarka eta behar bezala sinatuta aurkeztu beharko du. Hilaren 15etik aitzinera jakinarazten bada abonatuia izateari utzi nahi zaiola, ez da dirurik itzuliko.

#### *ABONATUA IZATEARI UZTEKO ETA ESZEDENTZIA ESKATZEKO MOTAK*

##### ABONATUA IZATEARI UZTEA:

Aitzinetik idatziz hala eskatuta, instalazioaren zuzendaritzak banan-banan aztertuko ditu abonatuia izateari uzteko eskari guztiak.

Abonatuia izateari uzteko eskaria onartzeko irizpideak:

1- Etxez aldatzea, 100 Km baino urrutiago bizitzera joanez gero.

2- Osasun-arazoak: medikuaren txostena eskatuko da. Erabateko ezintasuna badago, betiko utzi ahal izanen zaio abonatuia izateari; aldi baterako ezintasuna izanez gero, eszedentzia emanen da.

3- Bertzelakoak.

URTO OSOKO ABONAMENDUetarako, sei hilabetekoak aintzat hartuta onartuko dira abonatu izateari uzteko eskariak (ilbeltza-ekaina eta uzta-abendua); NEGUKO ABONAMENDUetarako, lau hilabetekoak (iraila-ilbeltza, otsaila-maiatza) aintzat hartuta onartuko dira.

## ESZENDENTZIA:

Eszendentzia onartzeko irizpideak:

1- Aldi baterako osasun-arazoak; mediku-txostena aurkeztu beharko da.

2- Lana dela-eta etxez aldatzea (100 km-ra edo urrutiago).

3-Bereziak. Horrelako kasuak banan-banan aztertuko dira.

Eszendentzia eskatuta abonamendua mantendu ahal izateko, urtero, kuota bat ezarriko da, eta kuota hori ordaintzen jarraitu beharko da; kuota osoaren %33.

Abonatu-txartela galduz gero, kausa edozein delarik ere, lehenbailehen jakinarazi beharko zaio instalazioak kudeatzen dituen erakundeari. Txartela berriz egiteagatik ordaindu behar da eta Udalak zehaztuko du zenbat izanen den.

Instalazioari emandako datuetan aldaketarik badago, abonatuak datu berriak jakinarazi beharko dituzte: helbidea, kontu korrontearen zenbakia, harremanetarako telefono-zenbakia, etab. Abonatuak hartuko ditu bere gain edozein datu aldatzeak ekar ditzakeen ondorioak.

11. artikulua. Instalazioak ahalik eta modu egokienean erabiltzeko, Udalak abonatu-kopurua mugatu ahal izanen du.

12. artikulua. Abonatuaren txartela pertsonala eta bertzerenezina da. Txartela jabea ez den bertze batek erabiltzen badu, jabeari txartela kendu eta araudiak zehazten duen zigorra ezarriko zaio.

13. artikulua. Abonatuak honako eskubide hauek dituzte:

13.1. Instalazioetara sartu ahal izatea abonatu-txartela aurkeztuta, betiere jendearentzat irekita dauden ordu eta egunetan.

13.2. Instalazioak erabiltzea, kirol-eremu bakoitzerako onartutako araudia aintzat hartuta.

13.3. Antolatzen diren kirol-jardueretan izena eman ahal izatea.

Jardueretan izena emateko lehentasunak:

1- Instalazioko abonatuak

2- Abonatuta ez dauden lesakarrak

3- Abonatuta ez dauden bortziritarrak

4- Abonatuta ez dauden Bortzirietatik kanpoko pertsonak

13.4. Kasu bakoitzean eskaintzen diren beherapenak aprobetxatzea.

13.5. Hala dagokionean, instalazioen funtzionamenduari buruzko erreklamazioak eta iradokizunak egitea.

13.6. FAMILIA-ABONATU IZAERA lortzea eta une bakoitzean horri lotutako abantailak aprobetxatzea: Irizpideak eta baldintzak:

- Senar-emazteak edo izatezko bikotea.
- 18 urtetik beheitiko haien seme-alabak.
- Guraso bakarreko familiak eta haien 18 urtetik beheitiko seme-alabak.
- Etxe berean erroldatuta daudela egiaztatzea, instalazioan behar den dokumentazioa aurkeztuta.

14. artikulua. Abonatuak erabiltzaileentzat aitzinago zehaztuko diren betebeharrak bete beharko dituzte.

### III. KAPITULUA

#### **Abonatuak ez direnak**

15. artikulua. Abonatuta ez dauden pertsonak honela sartu ahal izanen dira kirol-instalazioetan:

.Uda-garaian:

“Eguneko sarrera” erosita.

“Udako abonamendua” erosita.

Kirol-ikastaroetan izena emanda.

.Negu-garaia:

“Eguneko sarrera” erosita.

Hilabeteko abonamendua erosita.

“Neguko abonamendua” erosita.

Kirol-ikastaroetan izena emanda.

Instalazioan sartzeko modu bakoitzaren zehaztasunak.

-Eguneko sarrera:

Hala eskatzen duen edozeinek erosi ahal izanen du eguneko sarrera, mota bakoitzerako ezarritako prezioa unean berean ordainduz gero.

Adinari dagozkion kasu bereziak:

- Adin txikiko batek eguneko sarrera erosi ahal izateko, sarrera ordaintzen duen edo abonatua den heldu batek lagunduta joan beharko du.
- 11-15 urte bitarteko gaztetxo batek sarrera erosi ahal izateko, adin-tarte bereko abonatu batek nahiz sarrera ordaintzen duen edo abonatua den heldu batek lagunduta joan beharko du.

Eguneko sarrera eskudirutan ordainduko da.

Eguneko sarrerak instalazioan egun batez sartzeko aukera ematen du; egun erdiko sarrerak, berriz, egun erdiz sartzeko aukera ematen du, 15:30ak arte edo 15:30etatik aitzinera. Sartu ahal izateko, ordain-txartela erakutsi beharko zaie harrerako langileei.

Eguneko sarrera gaizki erabiliz gero (bikoiztea, bertze bati ematea, etab.), egun horretan sartzeko eskubidea galdu egingen da.

-Nora sartzen ahal den:

Aldagelak.

Igerileku klimatizatuak eta udako igerilekuak.

Spa-eremua.

Haur-eremua.

-Neguko abonamendua:

Hala eskatzen duen edozeinek erosi ahal izanen du neguko abonamendua, ezarritako prezioa ordainduz gero.

Neguko abonamendua erosten dutenak ez dira Instalazioetako Urteko Abonatutzat joko.

Negu-garaian sartu ahal izanen dira instalazioetara, garai horretarako ezarritako ordu eta egunetan; enpresa kudeatzaileak zehaztuko du negu-garaia noiz hasi eta noiz bukatzen den.

Enpresa kudeatzaileak zehaztuko du zenbat negu-abonamendu egin ahal izanen diren.

- Nora sartzen ahal den.

Aldagelak.

Igerileku klimatizatuak.

Spa-eremua

Gihartze-gela. (Horri dagokion kuota gehigarri ordainduta)

Kirol-ikastaroetan izena ematea.

Negu-garaian zein uda-garaian antolatzen diren kirol-ikastaroetako batean izena emana (13.3 artikuluan aipatutako lehentasun-ordenarako baldintzak aintzat hartuta) duten pertsonak instalazioetan sartu ahal izanen dira, abonatuak izan gabe.

Ikastaroak irauten duen bitartean sartu ahal izanen dira, eta ikastaroaren aurretik eta ondotik arazoizko denbora-tarte bat utziko zaie.

Kirol-ikastaro bateko parte-hartzaile batek instalazioa erabiltzeko eskubidea edo sartzeko txartela gaizki erabiltzen badu, ikastaroa utzi beharko du eta ordaindutako kuotak ez zaizkio itzuliko.

15.1. Ezohiko kasuren batean, instalazioetara sartu ahal izanen da instalazioko arduradunei hala eskatuz gero eta horiek onartuz gero. Sartu ahal izateko baldintzak enpresa kudeatzaileak ezarriko ditu. Pertsona horiek ez dira inoiz ere Urteko Abonatutzat hartuko.

#### IV. KAPITULUA

##### Zigor-araudia

16. artikulua. LESAKAko Udaleko alkatetzari dagokio abonatuak eta erabiltzaileak zigortzeko neurriak hartzea. Zigor horien helburua Araudi hau betetzen dela zaintzea eta instalazioaren barruan dauden udal-ondasunak babestea izanen da.

17. artikulua. Instalazioko langileek ahalmena izanen dute erabiltzaileak ahoz ohartarazteko, baita horiek instalazioetatik kanporatzeko edo abonatuei txartela kentzeko ere ahozko ohartarazpenei kasu egiten ez badiete; neurri horiek arau-hausleari gero ezarriko zaion zigorraz kanpo daude.

18. artikulua. Honelako izanen da zigor-prozedura:

Erabiltzaileek araudi honetan ezarritako edozein arau betetzen ez dute, instalazioko edozein langilek edo horretarako ahalmen duenak txartela kentzen ahal dizkie eta instalaziotik modu prebentiboan kanporatu.

Kirol Instalazio honetako Gerentziak Udalari bidaliko dizkio txosten bat eta arau-hauslearen datuak, hark Araudi hau oinarritzat hartuta dagozkion neurriak har ditzan. Neurri horiek arau-hausleari jakinaraziko zaizkio eta, indarrean dagoen legean modu orokorrean ezarritakoaren arabera, neurri horien kontrako helegiteak jarri ahal izanen ditu. Erabiltzaileari instalaziora sartzeari behin betiko edo aldi baterako debekatu bazaio, ezin izanen da sartu helegite horiei buruz erabaki arte.

19. artikulua. Honela sailkatuko dira hutsegiteak:

Hutsegite arinak.

Hutsegite larriak.

Hutsegite hagitz larriak.

a) Honako hauek izanen dira hutsegite arinak:

-Kirol-eremu bakoitzeko araudi espezifikoak ez betetzea.

-Kirol-instalazioak erreserbatutako ordutegitik edo egunetatik kanpo erabiltzea.

-Kirol-instalazioak honako kasu hauetako batean erabiltzea: abonatua izan gabe, eguneko sarrerarik edo neguko abonamendurik izan gabe, une horretan han egoteko baimen espliziturik izan gabe, ikastaro batean izena emanda egon gabe edo instalazioak erabiltzen dituzten kirol-klubetako bateko kidea izan gabe.

- Espresuki debekatuta dagoen tokietan janaria, edaria edo beirazko ontziak sartzea.
- Aldageletako armairuak behar ez bezala erabiltzea.
- Instalazioetako langileei kasurik ez egitea.
- Araudi honetan jasotzen den edozein arau ez betetzea, espezifikoki hutsegite larritzat edo hagitx larritzat jotzen direnak izan ezik.

b) Honako hauek izanen dira hutsegite larriak:

- Liskarrak eta eraso fisikoak sortzea edo horrelakoetan parte hartzea.
- Kirol-instalazioetan animaliak sartzea.
- Kirol-instalazioetan instalazio horiek kaltetzen ahal dituzten produktuak sartzea.
- Belardia edo kanpoaldea nahita zikintzea edo hondatzea.
- Igerilekuetako edo/ eta jacuzziko ura zikintzea.
- Instalazioetan, horniduretan edo kirol-materialaren gainean listu botatzea, pixa egitea edo horiek zikintzea.
- Hiru hutsegite arin egitea.
- Bertze norbaiti, instalazioetan sar dadin, abonatu-txartela uztea.
- Bertze erabiltzaileen edo arau-hauslearen beraren segurtasunari eragiten dion bertze edozein hutsegite.
- Instalazioko edozein ondasun higigarri edo higiezin hondatzea.
- Instalazioaren barruan egoera modu larrian nahasten duen edozein ekintza edo utzikeria egitea.

c) Honako hauek izanen dira hutsegite hagitx larriak:

- Hiru hutsegite larri egitea.
- Kirol-materiala ebastea.
- Instalazioetako ardua duten langileei fisikoki edo ahoz erasotzea edo haienganako errespetua galtzea.
- Erabiltzaileen gauzak ebastea.
- Urtebeteko epean hiru hutsegite larri egitea.
- Instalazioko bizikidetzak, ordena eta segurtasuna kaltetzen dituzten ekintzak egitea.
- Instalazioak erabiltzeko eskubidea duten pertsonen horiek erabil ditzaten galaraztea.

-Instalazioek normaltasunez funtziona dezaten galaraztea edo hori modu larri eta argian eragoztea.

-Instalazioak, haren elementuak, azpiegiturak edo hornidurak larri eta argi kaltetzen dituzten ekintzak egitea.

20. artikulua. Hutsegite arinen zigorra instalazioa aldi baterako erabili ezin izatea izanen da, 3 eta 5 egun bitartean. Halaber, 25 eta 60 euro bitarteko isuna ekarriko du eta egindako kalteak osatu beharko dira.

21. artikulua. Hutsegite larrien zigorra instalazioa aldi baterako erabili ezin izatea izanen da, 15 egun eta 1 hilabete bitartean. Halaber, 61 eta 300 euro bitarteko isuna ekarriko du eta egindako kalteak osatu beharko dira.

22. artikulua. Hutsegite hagitx larrien zigorra instalazioa aldi baterako (hilabete batez) erabili ezin izatea edo instalazioa inoiz gehiago erabili ezin izatea izanen da, Udalak arau-hauslearen kontra legez egin ditzakeen eskariez gain. Halaber, 61 eta 300 euro bitarteko isuna ekarriko du eta egindako kalteak osatu beharko dira.

23. artikulua. Hutsegite hagitx larriak hiru urteren buruan preskribatuko dira; hutsegite larriak bi urteren buruan, eta arinak sei hilabeteren buruan. Hutsegite hagitx larriengatik ezarritako zigorrak hiru urteren buruan preskribatuko dira; hutsegite larriengatik ezarritako zigorrak bi urteren buruan preskribatuko dira, eta hutsegite larriengatik ezarritako zigorrak, urte baten buruan.

24. Hartutako erabakien kontra, indarrean dagoen legeak modu orokorrean ezartzen dituen helegiteak aurkeztu ahal izanen dira.

Helegite horiei buruz erabaki arte, instalazioak aldi baterako edo betiko erabiltzea galarazita daukan erabiltzailea ezin izanen da hara sartu.

25. artikulua. Honako hauek erregulatuko dute zigor-erregimenari aplikatu dakioken araudia: Herri Administrazioen Erregimena eta Prozedura Erkidea araupetzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. Tituluak, "Zigor-ahalmenari buruzkoak", eta Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Tituluak.

## V. KAPITULUA

Instalazioak erabiltzeari buruzko araudia

26. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak:

Honako hauek dira erabiltzaileen betebeharrak:

26.1. Instalazioak eta zerbitzuak modu zuzenean eta egokian erabiltzea.

26.2. Bertze abonatu eta erabiltzaileak errespetatzea eta bizikidetzaren onerako jendetasuna zaintzea.

26.3. Ezarritako kuotak behar den epean ordaintzea eta aitzinetik eman diren ordutegi erreserbatuak betetzea.

26.4. Instalazioa erabiltzeko ematen diren jarraibide eta arauak betetzea eta onartzea.

26.5. Udalak ezarritako zigorrak betetzea.

26.6. Helduek instalazioaren barruan beren ardurapean dituzten adin ttikikoen segurtasuna zainduko dute.

26.7. Erabiltzaile adindunek beren gain hartuko dituzte ardurapean dituzten adin ttikikoen egindako arau-haustea (araudi honekin lotutakoak) eta haiei dagozkien zigorrak.

26.8. Udal Kiroldagiko erabiltzaileek zorrotz bete beharko dute ordutegia, eta duxatzeko eta arropa aldatzeko behar duten denbora ongi kalkulatu beharko dute, beti ixteko ordua baino lehenago ateratzeko.

26.9. Erabiltzaileek berek izanen dute instalazioetan dauden bitartean asmo txarrez, axolagabekeriak edo bertze edozein moduz sortutako kalteen ardura, bai instalazioetan egindako kalteena, baita bertzei eragindakoena ere.

26.10. Udal Kiroldagira sartzeko eta instalazioko langileek hala eskatzen dutenean, txartela aurkeztu beharko da. Txartela edo egiaztagiria aurkezten ez bada, administrazio-langileek kirol-instalazioetara sartzeari debekatuko dute.

26.11. Hurrek, instalaziora bakarrik sartzeko, guttienean, 11 urte izan beharko dituzte. Adin ttikikoen egindako edozein ekintza haien guraso edo tutoreen ardura izanen da. B MOTAKo adin ttikikoak C eta D MOTAKo pertsonekin sartzeari debekatuko dira.

26.12. Higiene-arrazoiengatik, debekatuta dago instalazioaren barruan bizarra moztea, depilatzea, eskuetako edo hanketako azazkalak moztea eta gisa horretako ekintzak egitea.

26.13. Horretarako prestatuko eremuetan bakarrik jan edo erre ahal izanen da.

27. artikulua. Instalazioak ez du bere gain hartzen ondasun pertsonalak desagertzea, galtzea edo hondatzea.

28. artikulua. Zerbitzugunea

28.1. Honako hauek sartzeari debekatuko dira zerbitzugunean: ostaldea, jatetxea, aldagelak, armairuak, duxak, komunak eta botikina.

28.2. Erabiltzaileek instalazioa garbia egon dadin lagunduko dute; horretarako, langileekin elkarlanean arituko dira instalazio guzian barna dauden zakarontziak erabiltzea.

28.3. Erabiltzaileek altzari guztiak, bankuak, belardiak, arbolak eta abar zaindu eta errespetatu beharko dituzte.

28.4. Erabiltzaileek instalazioko ordutegia errespetatu beharko dute eta langileek horri buruz errandakoa bete.

28.5. Erabiltzaileek jendetasuna eta begirunea zaindu beharko dituzte, eta bertze erabiltzaileen gizarte- eta kirol-alderdia errespetatu.

28.6. Arropazaindegi-zerbitzua armairuetako eremura mugatuta dago. Aldageletako armairuak igerilekuak eta gihartze-gela erabili behar dituzten abonatuentzat izanen dira; 1. solairuan daudenak, berriz, jarduera-geletan aritu behar duten erabiltzaileentzat izanen dira. Eguna bukatutakoan, armairu guziak irekiko dira.

28.7. Ostatuko telefonoa telefono publikoa izanen da.

28.8. Erabiltzaileentzako botikin-zerbitzua ere izanen da igerilekuetako bainu-ordutegian, eta langile espezializatuek emanen dute zerbitzu hori.

28.9. Aldageletan eta dutxetan, nahitaez erabili beharko dira txankletak, higiene-arrazoiak direla-eta.

28.10. Galarazita dago patinak, bizikletak, haur-aulkitxoak, gurdiak edo horrelakoak aldageletan sartzea. Horiek uzteko, eremu egoki bat prestatuko da.

29. artikulua. Igerilekuak.

Erabiltzaileek bainatzeko, igeri egiteko edo, hala dagokionean, lehiatzeko erabiliko dituzte igerilekuak, eta eremu horietako bakoitza argi mugatuta egonen da igerilekuaren barruan.

Igerilekuetan, sorosleak (baita igerilekuan lan egiten duten langileek ere) izanen du horiek ongi funtzionatzeko ardura, eta Araudiak zehaztutako arauak betearazi beharko ditu, instalazioak modu arrazionalen erabil daitezen eta bainularien segurtasuna zaintzeko.

Sorosleek erabiltzaileak ohartarazteko ahalmena izanen dute.

Sorosleen funtzio eta betebeharra bainulari guzien segurtasuna zaintzea da; gurasoek eta legezko tutoreek dute 18 urtetik behitikoaren ardura (batez ere, igeri ez badakite).

Kiroldegiko langileek ahalmena dute erabiltzaileak beren jokaerarengatik ohartarazteko (edo instalaziotik kanporatzeko), bertze erabiltzaileei errespetua galtzen badiete.

29.1. Urgunea, nola sartu eta nola jokatu

Erabiltzailea ezin izanen da sartu igerilekura kanpoko arropa edo oinetakoekin. Nahitaezkoa da uretan sartu aitzinetik dutxa hartzea.

Igerilekuetan, nahitaezkoa da bainujantzia eta txanoa janztea eta bainu-txankletak erabiltzea.

Galarazita dago laster egitea, salto egitea, bulkatzea, bertze erabiltzaileak arriskuan jartzen ahal dituen bertze edozein ekintza edo bertzeei traba egiten ahal dien edozein jarduera egitea. Halaber, debekatuta dago igerilekuen eremuan eta hondartzan jatea eta beirazko objektuak edo ezpaletan hausten ahal diren objektuak erabiltzea.

Galarazita dago baloiak, koltxonetak eta bertze erabiltzaileei traba egiten ahal dieten bertzelako objektuak sartzea; igeri egiteko betaurrekoak, hanketarako hegalak eta material espezifikoak (baldin

eta, instalazioetako arduradunari –sorosleari– eskatu eta gero, baimena eman badu), berriz, sartzen ahal dira.

Uda-garaian, erabiltzaileak beren aulkiekin sartu ahal izanen dira kanpoko igerilekuetara, baina zoladura duen alderdian jarri beharko dituzte, aulkiek belarra zanpa ez dezaten.

Zeharo galarazita dago listua botatzea, pixa egitea eta uraren kalitatea kaltetzen ahal duen bertze edozein ekintza egitea.

## 29.2. Bainu-eremua.

Erabiltzaileak bertze helburu batzuetarako (ikastaroak, entrenamenduak...) mugatuta ez dauden eremuetan ibiliko dira.

Ikastaroetarako materiala (oholak, igeri egiteko mahukak, ikasteko materiala...) horietan izena emana dutenek bakarrik erabili ahal izanen dute eta ikastaroak irauten duen bitartean soilik.

Ezin da igerilekuetako kortxo-ilaretan dilindan ibili edo horiei eutsi.

Instalazioak kudeatzen dituen erakundeak antolatutako ikastaroetako parte-hartzaileak programatutako jardueretan ari diren bitartean, bainu libreko erabiltzaileek ezin izanen diete errieta edo traba egin ezta bulkatu ere.

## 29.3. Ikastaroak eta entrenamenduak.

Instalazioko erakunde kudeatzaileak programatutako jardueraren batean izena emana duten erabiltzaileek monitoreek emandako aholku eta aginduak bete beharko dituzte ikastaroetan eta instalazioak erabiltzean eta araudi hau eta indarrean dauden legeak errespetatu.

29.4. Patinak, haur-aulkitxoak, guriak, bizikletak eta horrelakoak ezin dira igerilekuen eremura sartu.

29.5. Adin txikiko erabiltzaile batek, igerilekuen eremuan gurasorik edo tutorerik gabe egon ahal izateko, guttienean, 11 urte izan beharko ditu, baldin eta igeri egiten badaki. Adin txikikoek egindako edozein ekintza gurasoen edo tutoreen ardura izanen da.

## 30. artikulua. Gihartze-gela.

30.1. Gihartze-gelan, 16 urtetik goitiko abonatuak bakarrik sar daitezke.

30.2. Gihartze-gelan sartzeko, nahitaezkoa izanen da monitorearekin ikastaro bat egitea; ikastaroa, guttienean, ordu beteko saio bat izanen da.

30.3. 16 urtetik behetikoak sartu ahal izanen dira medikuak hala agindu badie eta gurasoek edo tutoreek baimen idatzia eman badute; betiere, monitorea egoten den ordutegian aritu beharko dute.

30.4. Gihartze-gelako monitoreak eta instalazioko arduradunek gela hori gaizki erabiltzen duten pertsonak ohartarazteko ahalmena dute, baita kasuren batean gelatik kanporatzeko ahalmena ere,

baldin eta nahastea sortzen badute, makineria gaizki erabiltzen badute eta bertze erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jartzen badute.

30.5. Gihartze-gelan sartzeko, nahitaezkoa da kirol-arropa eta oinetakoak jantzea, baina ez kanpotik jantzita ekartzen zirenak.

30.6. Higiene- eta errespetu-arrazoiak direla-eta, nahitaezkoa da toaila bat eramatea, aparatu bakoitza erabili eta gero hura garbitzeko.

30.7. Gihartze-gelako erabiltzaileek pisu osagarriekin lan egiten badute, gero beren tokian utzi beharko dituzte; hala, gela txukun mantendu ahal izanen da.

30.8. Erabiltzaileei gomendatzen zaie gihartze-gela erabiltzen hasi baino lehen osasun-azterketa bat egitea.

30.9. Udalak eta enpresa kudeatzaileak ez dituzte beren gain hartuko gihartze-gelako aparatuak eta materiala gaizki erabiltzeagatik erabiltzaileei sortzen ahal zaizkien arazoak.

31. artikulua. Jarduera-gelak.

31.1. Jarduera-gelak Udalak eta kiroldegia kudeatzen duen erakundeak antolatutako ikastaroetarako bakarrik erabiliko dira. Beraz, ikastaroetan izena emana dutenak bakarrik sartzen ahal dira.

31.2. Ikastaroetako ordutegietatik kanpo, kirolgune hori itxita egonen da abonatuentzat.

31.3. Kirol-esparru horretara sartzeko, kirol-arropa eta -oinetakoak jantzi beharko dira, baina ez kanpotik jantzita ekartzen zirenak. Arau hori betetzen ez duten erabiltzaileei kirol-esparru horretara sartzea galarazi ahal izanen zaie.

32. artikulua. Spa-eremua.

32.1. Ereku horretan, 14 urtetik goitiko abonatuak bakarrik sartu ahal izanen dira. Ezohiko kasuetan, 14 urtetik beheitikoak ere sartu ahal izanen dira, Udalak eta enpresa kudeatzaileak hala erabakitzen badute.

32.2. Instalazioko zuzendaritzak erabiltzaileei eskatzen die osasun-azterketa bat egiteko, kirol-eremu horiek erabiltzea osasunerako komenigarria ote zaien jakin dezaten.

32.3. Ereku hori modu librean erabili ahal izanen da, baina erabiltzaileek beti errespetatu beharko dute elementu bakoitzari dagokion erabilera-denbora. Ardura duen sorosleak kontrolatuko du spa-eremuan zenbat jende sartzen den, eta, beharrezkotzat jotzen badu, jende gehiago ez sartzeko agindu ahal izanen du.

32.4. Ereku horretan, informazio-taulak jarriko dira elementu bakoitza erabiltzeko gomendioen berri emateko.

32.5. Higiene-arrazoiak direla-eta, nahitaezkoa da kirol-eremu horietara txankletekin sartzea, baita toaila erabiltzea ere.

32.6. Galarazita dago edozein gailu ukitzea: zundak, erlojuak, etab.

32.7. Debehatuta dago saunan eta hari atxikitako eremuan bizarra moztea, jatea eta hondarrak uzten dituen bertze edozein ekintza egitea.

32.7. Galarazita dago spa-eremuan liburuak, aldizkariak eta paperak sartzea.

32.8 Nahitaezkoa da bainujantzia eta bainurako txanoa eta txankletak erabiltzea.

### 33. artikulua. Haur-eremua

Haur-eremua 0 eta 12 urte bitarteko abonatuentzat da. 0 eta 3 urte bitartekoek beti egon beharko dute haien ardura duen heldu batek lagunduta.

4 eta 12 urte bitarteko haurrak haur-eremuko arduradunak zainduko ditu horretarako programatutako orduetan.

Irekita dagoen bitartean, arduradun batek gainbegiratuko du eremua; hark zainduko ditu haurrak, eta barrenean eman behar duten denbora dinamizatu beharko du, jarduerekin, mahai-jokoekin, eskulanekin, filmak emanez eta abar.

Arduradunak zehaztuko du eremu horretan zenbat haurrentzako tokia dagoen eta haur bakoitza gehienez ere zenbat denboraz egon ahal izanen den, eta gurasoei edo tutoreei jakinaraziko die.

Haurrak eremu horretan egon behar duen bitartean, gurasoekin edo tutoreekin bakarrik atera ahal izanen da. Gurasoek, batetik, kontuan hartu beharko dute haur-eremuaren barruan ez dagoela komunik eta, bertzetik, aintzat hartuko beharko dituzte beren haurraren bertzelako beharrak eta, denbora guzian, erraz aurkitzeko moduan egon behar dute.

Udalak eta enpresa kudeatzaileak bertze erabilera batzuk onartu ahal izanen dituzte eremu horretarako edo bertze norbaiti errentan utzi.

## VI. KAPITULUA

### Jarduerei buruzkoa

16 urtetik behitikoentzako Kirol-ikastaroak ez dira bertzeak bezala tratatuko.

### 34. artikulua. Kirol- eta igeriketa-ikastaroak.

34.1. Enpresa kudeatzaileak zehaztuko du nola eman izena kirol- eta igeriketa-ikastaroetan parte hartzeko.

34.2. Udalak bere ordenantzetan zehaztuko du zenbat ordaindu behar den kirol-ikastaroetan parte hartzeagatik.

34.3. Kirol-ikastaro guzietan, gehienezko parte-hartzaile kopurua izanen da; beraz, kopuru hori betez gero, ez da onartuko bertze inork izena ematea.

Norbaiten huts egiten badu, itzarote-zerrendan dagoen jendeari deituko zaio.

34.4. Halaber, Kirol-ikastaro guzietan, gutxieneko parte-hartzaile kopurua izanen da (instalazioko zuzendaritzak zehaztuko du kopuru hori) eta, kopuru horretara ailegatzen ez bada, ikastaroa bertan behera geldituko da.

34.5. Ikastaro batean izena ematen bada eta ikastaroa hasia bada, inoiz ere ez da ordaindutako dirua itzuliko, baldin eta jarduera aurreikusi zen bezala gauzatzen ari bada.

Ikastaroa oraindik hasi ez bada, eta izena eman duen pertsonaren batek ikastaroan parte ez hartzea erabaki badu, ordaindutako dirua itzuli egingen zaio.

34.6. Jarduera guzietan, erabiltzaileak dagozkien kirol-ikastaroetara joaten ote diren gainbegiratu da, eta izena eman duen pertsona bat ikastarora inoiz joaten ez bada bakarrik emanen zaio baja ikastarora ez agertzeagatik. Neurri hori hartuko da jarduera horretako itxarote-zerrendan egon daitekeen jendeari ikastaroan sartzeko aukera emateko.

34.7. Ez da inoiz ere onartuko egunez edo ordutegiz aldatzea, nahiz eta bertze egun eta ordutegi horietan kirol-jarduera bera eman.

## VII. KAPITULUA

Araudi honetan ezarritakoari buruzkoa

35. artikulua. LESAKAKO Udalak eta enpresa kudeatzaileak interpretatu eta aplikatuko dute araudi hau. Zerbitzua kudeatzeaz arduratzen den pertsonak edo erakundeak, udalak beraren esku hala utzita, interpretatu eta aplikatuko ditu hemen xedatutakoak, eta instalazioan agertuz joaten diren arazoak ahalik eta modu bidezkoenean konpondu beharko ditu.